



ONDARROAKO UDALA

Udaltzain-agenteen lan-poltsa osatzeko deialdiaren oinarriak.

1.- Deialdiaren xedea eta arau orokorrak.

Deialdi honen xedea da udaltzain-agenteen lan-poltsa osatzea Ondarroako udaltzaingoan gerta daitezkeen hutsuneak bete eta udaldian aurreikusten den lan pilaketari aurre egiteko.

Merezimendu bidezko prozesuan parte hartzen izangaiek lan-poltsa bat osatuko dute eta lan-poltsa horretan egoteak eskubidea emango die, sor daitezkeen aldi baterako beharrak betetzeko deituak izateko, merezimendu bidezko prozesuan lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Lanaldia, lan-egutegia, ordutegia eta dedikazio erregimena Udalak ezarriko ditu, zerbitzuaren beharrei erantzunez.

2.- Izangaien betebeharrak.

Aukeraketa-prozesu honetan parte hartzeko, honako baldintzak bete beharko dira:

- a.- Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean 18 urte beteta edukitzea.
- b.- Titulazioa; Batxiler titulua, titulu teknikoa edo maila handiagoko beste edozein titulu.
- c.- B motako gidabaimena edo baliokidea edukitzea eskabideak aurkezteko epea amaitzean.
- d.- 2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea.
- e.- Doluzko delituagatik kondenatua ez izana, Herri Administrazioaren zerbitzutik baztertua ez izana, eta funtzio publikoak betetzeko debekurik ez izatea. Hala ere, birgaitzearen onura aplikatu ahal izango da, zigor- eta administrazio-arauei jarraiki, baldin eta izangaiak dagokion agiri ofizialaren bidez egiaztatzen badu egoera hori.
- f.- Hutsegite larria edo oso larria egin izanagatik Euskal Herriko Polizia Kidegoren batean sartzeko hautespen-prozesutik baztertutakoa ez izatea, non eta baztertzea aitortu zenetik zigorraren iraungipen-epea ez den igaro.
- g.- Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun edo bateraezintasunezko lege-kausa batean nahastuta ez egotea.

Izangaiek, deialdian onartuak izateko eskabideak entregatzeko epea amaitu baino lehen beteta eduki behar dituzte baldintza horiek (f puntua izan ezik) eta lanpostuaz jabetu arte bete. Halaber, prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen betekizunak edo baldintzak, lan poltsatik kanpo geratuko litzateke.

3. Eskaerak.

Eskaerak aurkezteko epea, Ondarroako Udaleko webgunean eta iragarki taulan deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita 10 egun naturaleko epean bukatuko da.

Oinarrietan eskatutako baldintza guztiak egiaztatzeko agiriak eta beharrezko titulu eta ziurtagiriak eskaerarekin batera entregatuko dira.



ONDARROAKO UDALA

Eskaerak:

- Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira
- Posta-bulegoetan: horrelakoetan, betiere aurkezpen-epearen barruan, gutun-azal ireki batean aurkeztu behar zaio eskabidea postetxeko funtzionarioari, hark eguna eta zigilua jarri eta ziurtatu ahal dezan. Horrela bakarrik ulertuko da eskariak Postetxearen bulegoan entregatu ziren egun berberan sartu zirela Udal Erregistroan. Eskabidea bera da zigilatu beharrekoa.

4. Izangaiak onartzea.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero, alkateak onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du, eta baztertu diren izangaien kasuan, baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu. Behin-behineko zerrendak Udaleko web orrian eta Udalaren iragarki-oholean argitaratuko dira, eta erreklamazioak aurkezteko edo akatsak zuzentzeko 3 egun balioduneko epea utziko da, argitalpena egin eta biharamunetik hasita.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin behineko zerrenda behin betiko bihurtu dela ulertuko da. Erreklamaziorik egonez gero, alkateak ebazpen bidez onartu edo baztertuko ditu, eta ondoren, behin betiko zerrenda onartuko du.

5.- Kalifikazio Epamahaia

Kide hauek osatuko dute Kalifikazio Epamahaia:

Lehendakaria: Gorka Lauzirika Urberuaga (Udal Idazkaria)
Mahaikidea: Jon Osa Onaindia (Zerbitzuko langilea)
Idazkaria: Imanol Elorza Castillo (Udaleko administraria)

6.- Merezimenduak

- Udaltzain-agente gisa Herri Administrazioan eskainitako zerbitzuak: Gehienez ere 10 puntu emango dira, 0,25 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko. Ondarroako Udala ez den beste edozein Udaletan egin bada Udaltzain modura lan, udal horretako ziurtagiria aurkeztu beharko da eskariarekin batera. Lanaldi murriztuan egindako lanak %100ean egindako lanaldi gisa zenbatuko dira.
- C1 (EGA, 3. Hizkuntza eskakizuna) mailako euskara titulua dutenei puntu bat emango zaie. C2 (4. Hizkuntza eskakizuna) mailako euskara titulua dutenei 2,5 puntu emango zaie.
- Sorospen, babes zibil, hiri-segurtasun edo Udaltzain-agenteen funtzio propioekin erlazio zuzena duten ikastaro ofizialak. Gehienez 2 puntu.
 - 0,25 puntu, 12 ordu arteko iraupena izan duen ikastaro bakoitzeko.
 - 0,50 puntu, 13 eta 45 ordu arteko iraupena izan duen ikastaro bakoitzeko.
 - Puntu 1, 46 ordu edo gehiago iraun dituen ikastaro bakoitzeko.



ONDARROAKO UDALA

- d. Prestakuntza: Iraupenaren eta edukiaren arabera, Udaltzain-agenteen funtzio propioekin lotura duten ikasketak, tituluak edo diploma ofizialak baloratuko dira honako modu honetan: 0,50 titulu bakoitzeko; espezialitate bakoitzeko titulu bakar bat baloratuko da, eta gehienez 2 puntu lortu arte.
- e. Graduatu titulua izateagatik, 2'5 puntu emango dira. Puntuazio hau emateko graduatu tituluaren kopia aurkeztu beharko da eskariarekin batera.

7.- Hurrenkera, eta berdintasuna apurtzeko irizpideak

Bigarren oinarrian aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonari aurkeztu dituzten merituek puntuatuko zaizkie seigarren oinarrian azaldutako moduan. Horrek ematen duenaren arabera, hurrenkera finkatuko da. Puntu-berdinketarik egonez gero, seigarren puntuaren emaniko merezimenduen ordenaren (a, b, c, d, e) puntuazioak finkatuko du hautagaien hurrenkera.

8.- Izendapena

Puntuazio altuena lortuko duenari eskainiko zaio postua betetzeko aukera, eta baiezkoa ematen badu, izendapena berari egingo zaio. Ezezkoa izanez gero, zerrendan hurrengo dagoenarengana joko da, horrela segidan.

9.- Datu pertsonalen babesa

Hautapen-prozesuan jaso diren datu pertsonalak tratatzeko, datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoa beteko da, eta fitxategi automatizatu batean gordeko dira datu guztiak. Fitxategi horren bitartez, hutsik dauden lanpostuak betetzeko hautapen-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egingo da, eta langileen aldi baterako beharrei erantzungo zaie. Izangaiek datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurka egiteko eskubidea dute. Horretarako, Ondarroako Udalera jo behar da.

Ondarroan, 2019ko martxoaren 22an
Alkatea, Zumbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga

